

LAN-POL TSA SORTZEA, OLAZTIKO UDALAREN GAZTETXOKORAKO MONITOREAK KONTRATATZEKO.

1-. Xedapen orokorrak

1.1. Deialdi honen xedea da lan-poltsa bat sortzea Olaztiko Udalaren GAZTETXOKO izeneko zerbitzurako bi monitore kontratatzeke, aldi baterako eta lan-araubidean. Zerbitzua aisia eta denbora libreko eskaintza da. Udalak antolatzen du Akelarre udal ludotekaren bidez, eta 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago.

Zerbitzua 2022ko urtariletik 2022ko maiatzera emango da, ostiral, larunbat eta igandeetan, arratsalde, baldintza-plegu honen 1.5 puntuan zehaztutako ordutegiaren arabera.

Monitore bakoitzak hilean bi asteburutan txandaka lan egingo du. Zerbitzuaren ordutegia —1.5 puntuan aipatzen da— eta bertan egiten den edozein aldaketa Gaztetxoko zerbitzua martxan jarri aurretik finkatu beharko dira, eta Olaztiko Udaleko Kultura eta Ludotekako koordinatzaileari jakinarazi beharko zaio, bera izango baita zerbitzu horretako arduraduna.

1.2. Hautaketa-prozesua gainditzen duten izangaiekin lan-poltsa bat sortuko da, puntuazio-ordena zorrotzaren arabera ordenatua, prestazio horietan eta etorkizunean zerbitzu hori garatzeko sor daitezkeen beharrei erantzuteko. Poltsa berriak ondoriorik gabe utziko du lehendik dagoen izangaien zerrenda oro.

1.3. Izangaiek proba praktikoa egin beharko dute, epaimahaiaren aurrean. Era berean, formakuntza eta lan-esperientzia ere baloratuko dira.

1.4. Kontratua aldi baterakoa izango da, eta 2022ko urtarilean hasi eta 2022ko maiatzera arte iraungo du.

Hilabeteko probaldia ezartzen da, eta horretan Administrazio kontratugileak diskrezionaltasunez ebatzi ahal izango du prozesu honetan hautatutako langileekin egindako kontratazioak.

1.5. Laneko ordutegia, gutxi gorabehera, honako hau izango da: ostiraletan: 18:30-21:30; Larunbatetan: 17:00-21:30; eta igandeetan: 17:00-21:00.

Ordu horiei jarduerak prestatu eta zerbitzua koordinatzeko astean sartzen dituzten orduak gehitu beharko zaizkie.

Lan-ordutegia eta egutegia aldatu ahal izango dira, zerbitzuaren premiak direla eta.

1.6. Aisialdiko begiraleak 14,09 euro gordin jasoko ditu lan egindako ordu bakoitzeko, 2021erako soldata-taulen arabera. Zenbateko horrek une bakoitzean indarrean dagoen legeriari dagozkion doikuntzak izango ditu.

1.7 Deialdi honekin zerikusia duten ekitaldi guztiak honako bitarteko ofizial hauetan jakinaraziko dira: Olaztiko Udalaren web-orrian eta iragarki-taulan.

2.- Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Deialdi honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

A) Nazionalitate espainarra izatea.

B) 18 urte beteak izatea eta erretiroa nahitaez hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

C) Batxilergoko edo bigarren mailako Lanbide Heziketako titulua izatea edo hori lortzeko eskubideak ordainduta izatea. Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, homologazio hori aurkeztu beharko da.

C) Langabean egotea edo lana hobetzeko inskribaturik egotea.

D) Bete behar diren eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

E) Euskaraz jakitea (C1 ahozkoa). Euskara maila egiaztatzeko organo eskudun batek emandako titulua aurkeztu beharko da eta titulurik eduki ezean, izangaiek proba bat gainditu beharko du hizkuntz gaitasun nahikoa duela frogatzeko, ekainaren 15eko 55/2009 Foru Dekretuaren 4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

F) NANA eta zerbitzuak eman diren enpresaren edo administrazioaren ziurtagiriak. Haietan honako hauek zehaztu beharko dira: egindako lana, eginkizunak, egindako jardueretan parte hartutako taldeetako kideen adinak, egunean, astean, hilean edo urtean lan egindako orduak eta emandako zerbitzuei dagokien urteko lanaldia.

G) Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean inskribaturik ez egotea.

H) 5.2 oinarrian adierazitako merezimenduak baloratzeko kontuan hartu behar diren dokumentuen zerrenda.

Ez da beharrezkoa izango dokumentazioa entregatzea, harik eta adierazten den arte.

Ez dira kontuan hartuko epez kanpo aurkeztutako agiriak, eta ez dira baloratuko h) puntuan adierazi bezala aurkeztu ez diren merezimenduak.

2.2. Gaztetxokoko monitore lanpostua betetzen duen pertsonak gai izan beharko du aisiaz eta denbora libreaz gozatzeko moduko hezkuntza jarduerak planifikatu eta gauzatzeko.

2.3. Lanpostuaren berezko eginkizunak.

*Gaztetxokotik kanpo nahiz barruan egin beharreko programak edo jarduerak programatu, dinamizatu eta ebaluatzea.

- * Lan administratiboetan laguntzea: izen-emateak, laguntza, publizitatea...
- * Ludoteka eta Kulturako Udal Zerbitzuarekin eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuarekin koordinatzea.
- * Taldearekin lokalean egotea, baita kalean edo beste eremu batzuetan egiten diren jardueretan ere.
- * Erabilitako lokalaren funtzionamenduari lotutako gaiak kudeatzea.
- * Instalazioak eta materiala zaintzea eta mantentzea, eta beharrezkotzat jotzen den guztia udalari jakinaraztea.
- * Eta lanpostuan aritzeko beharrezkotzat jotzen diren gainerako eginkizunak ere.

2.4. Honako hauek dira izangaiek eduki beharreko lanbide trebetasunak:

2.4.1 Instrumentalak:

- Arazoak ebaztea eta erabakiak hartzea.
- Aztertze eta laburtze gaitasuna izatea.
- Informazioa kudeatzeko gaitasuna izatea.
- Komunikatzeko gaitasuna izatea.
- IKTk erabiltzen jakitea.

2.4.2 Instrumentalak:

- Gaitasun kritikoa eta autokritikoa izatea.
- Aniztasuna eta kultur aniztasuna onartzea eta errespetatzea.
- Pertsonen arteko harremanetarako gaitasuna izatea (enpatia, asertibitatea, emozioen kudeaketa, etab.).
- Konpromiso etikoa.
- Heldutasun sozioafektiboa.

2.4.3- Sistemikoak:

- Egoera berrietara egokitzeko gaitasuna.
- Sormena.
- Iniziatiba.
- Lidergoa.

2.4.4- Profesionalak:

- 12-16 adin-tartearen ezagutza psikoebolutiboa.
- Jarduketa programak eta estrategiak diseinatzea.
- Taldean eta beste profesional eta erakunde batzuekin lan egitea.
- Bitartekoak eta baliabideak sortzea.
- Gizarteratzea oztopatu dezaketen faktoreak antzematea eta jakinaraztea.

2.5. Hautatutako pertsonen baimena ematen diote Olaztiako Udalari Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean sarturik ote dauden begiratzeko. Izan ere, adingabeekin lanbide, ogibide edo jarduerak egin nahi dituen orok ezin da inolaz ere Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean inskribaturik egon, hala ezartzen baitu Haurrak babesteari buruzko



uztailaren 28ko 26/2015 Legeak aldatutako urtarrilaren 15eko 1/1996 Legeak, bai eta Boluntarioei buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legeak ere.

3-. Prozedura

Olaztiko Udalak aldi baterako egiten dituen kontratazioetan zorrotz bermatu behar ditu berdintasun, meritu eta gaitasun printzipio konstituzionalak. Hori kontuan harturik eta 113/1985 Foru Dekretuaren 42. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidea aurkeztu eta aurreko baldintzak betetzen dituzten langabeen eta lana hobetzeko inskribatutako pertsonen zerrenda eskatuko zaio Altsasuko Enplegu Bulegoari hautaketa-prozesua gauzatzeko. Horretarako, hautagaiek proba praktikoa bat egin beharko dute epaimahaiaren aurrean eta curriculumak baloratuko dira, puntuaziorik altuena duten izangaiak kontratatzeko.

3.2. Probetan parte hartzeko, I. eranskinean agertzen den eskabidea eta bertan zehazten diren agiriak aurkeztu beharko dira, beteta, Altsasuko enplegu-bulegoan, NANaren kopiarekin batera.

Nolanahi ere, euskararen titulazioari eta ezagutzari buruzko dokumentazioa justifikatu beharko da. Horretarako, hala eskatzen denean, agiri originalak edo horien kopia konpultsatuak egiaztatu beharko dira, bai eta alegatutako esperientzia egiaztatzen duten enpresa edo administrazio kontratatzailearen ziurtagiriak ere, lanpostua, orduak, organo kontratatzailea eta egindako jardueren taldeen adina adierazita.

4. Epaimahai kalifikatzailea.

Epaimahaia Olaztiko Udaleko alkate-udalburuak osatuko du, Joseba Vizuete Ascargorta jauna, eta haren ordezkoa legez dagokiona izango da; lehenengo bokala, berriz, Blanca Torres Iglesias andrea, Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuko teknikaria, eta haren ordezkoa Altsasu, Ziordi eta Olaztiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko hezitzailea, Eneka Irizar Martínez; bigarren bokala Altsasuko Gaztetxoko teknikaria, Iñaki Lopez Aguado jauna, eta haren ordezkoa Alazne Guinea Jimenez andrea, Altsasuko Gaztetxeko teknikaria; hirugarren bokala, Olaztiko Udaleko langileen ordezkaria, Maite Zabala Duhau andrea, eta haren ordezkoa Ana Gil Andueza andrea langileen ordezkaria. Epaimahaiko idazkaria Sandra Martínez Gutiérrez andrea Udaleko idazkaria izango da, eta ordezkoa Irutzungo Udaleko idazkaria, Eguzkiñe Aiesa Andres andres. Epaimahaia proba egin aurretik osatuko da, eta gehiengoz ebatziko ditu baldintza hauek interpretatu eta aplikatzearekin zerikusia duten gai guztiak.

5. Probak.

6.1. Proba praktikoa egin eta merituak baloratu ondoren, euskara proba egingo da. Bakarrik eskatutako maila egiaztatu ez duten izangaiek egingo dute. Proba hori Sakanako Mankomunitatearekin lankidetzan egingo da, eta proba egiteko eguna, tokia eta ordua proba praktikoaaren emaitzen behin-behineko zerrendarekin batera argitaratuko dira, 1.7 oinarrian adierazitako bitarteko ofizialen bidez. Duela urtebete baino gutxiago antzeko proba bat gainditu dutenek ez dute probarik egin beharko.

5.1 Proba praktikoa (euskaraz egin beharko da ezinbestean): 60 puntu.

Proba horretan, idatziz erantzun beharko zaio GAZTETXOKO proiektuaren xedearekin zerikusia duen kasu praktiko bati. Proba idatzia egin ondoren, izangai bakoitzari deituko zaio, epaimahaiaren aurrean egindako ariketa azal dezan.

Epaimahaiak proba praktikoaarekin eta egin beharreko lanarekin zerikusia duten galderak egin ahalko dizkiote, hautagaia lanpostu horretarako egokia den ala ez baloratzeko.

Halaber, izangaiaren malgutasuna baloratuko da, honela ulertuta: haurrekin eta egoera desberdinetara egokitze eta eraginkortasunez lan egiteko gaitasuna izatea; arazo, oztopo edota aukera bat identifikatzeko eta hari erantzuna emateko jarduerak egiteko gaitasuna izatea; beste pertsonen arreta eskaintzeko nahia; besteen pentsamenduak, sentimenduak edo kezak entzuteko eta ulertzeko gaitasuna, nahiz eta hitzez ez adierazi edo osorik ez adierazi. Baita norberaren emozioak kontrolpean mantentzeko autokontrola edo gaitasuna, eta beste pertsona batzuen probokazio, kontrako jarrera edo etsaitasunaren aurrean erreakzio negatiboa ekiditeko gaitasuna izatea.

Proba hori egiteko data 1.7 oinarrian adierazitako bitartekoen bidez jakinaraziko da.

5.2. Merituen balorazioa, 40 puntu.

Merituengatik gehienez ere 40 puntu emango dira, honela banatuta:

5.2.1. Prestakuntza: 10 puntu

5.2.1.1. Araututako prestakuntza: 6 puntu.

5.2.1.2. Jarduerari lotutako beste prestakuntza mota batzuk. 4 puntu.

5.2.2- Laneko esperientzia: 30 puntu

5.2.1. PRESTAKUNTZA: 10 puntu, gehienez.

5.2.1.1. Araututako prestakuntza: Gehienez 6 puntu

Unibertsitate gradua: Gizarte Hezkuntza, Psikologia, Psikopedagogia	6 puntu
Gizarte Integratioko goi mailako heziketa-zikloa,	4 puntu

Animazio soziokulturala	
-------------------------	--

5.2.1.2 Jarduerari lotutako beste prestakuntza mota batzuk. Gehienez 4 puntu

Aisialdiko begiralea izateko ikastaroa	1 puntu.
Aisialdiko jardueretako begiralea izateko ikastaroa	1 puntu.
Gizarte eta kultura animazioaren gaineko ikastaroa	0,5 puntu
Gizarte eta kulturako begiralea izateko ikastaroa	0,5 puntu
Aisialdiko zuzendaria izateko ikastaroa	0,5 puntu
Ingurumeneko teknikak aisialdian lantzeko ikastaroa	0,5 puntu
Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna lantzeko prestakuntza. Puntu 0,5, 50 orduko (proportzionalki banatuak).	0,5 puntu
Ingurumen hezkuntzako begiralea izateko ikastaroa	0,5 puntu
Ikastaroak: Esku-lanak, argazkilaritza, dantza, teknologia berriak, hezkuntza, irakaskuntza, elkarbizitza, kirolaren arlokoak (igeriketa kanpo gelditzen da), eta abar. Puntu 0,5, 50 orduko (proportzionalki banatuak).	0,5 puntu

** Izangaiak aurreko ataletan aurreikusita ez dauden bestelako titulazio, gradu, master, etab. aurkezten baldin baditu, eta titulazio horiek bete behar den lanpostuarekin zerikusia badute, merituen balorazioaz arduratzen den taldeak kontuan hartu ahal izango ditu.

5.2.2- LAN ESPERIENTZIA: Gehienez 30 puntu

Udaletan edota beste erakunde publiko batzuetan hautaketaren xedea den lanpostu berdinean aritzeagatik, 6 puntu 30 orduko.	6 puntu/30 ordu
Hezkuntza formal edo informalekin, aisiarekin eta denbora librearekin lotutako beste jarduera batzuk, 12 eta 16 urte bitarteko erabiltzaileentzat: 2 puntu 30 orduko.	2 puntu/30 ordu
Monitore aritzea hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrekin: puntu 1 30 orduko.	1 puntu/ 30 ordu

** Prestakuntzari 10 puntu emango zaizkio gehienez eta 30. esperientziari. Puntuazio horren banaketa lanpostuaren ezaugarrien arabera da, hau da, esperientzia lehenesten



da berehala gauzatu beharreko lanerako gaituta dauden pertsonak behar direlako, lanpostuan bertan ikasteko denborarik ez dagoelako.

* Baldintza honen 2.1. puntuko f) atalean adierazitako moduan aurkezten bada soilik egingo da balorazioa.

* Lan egindako denboraldiak kalkulatzeko: 30 ordu hartzen da denbora-unitate gisa. Justifikatutako aldi guztiak proportzionalki kalkulatu dira kopuru horrekin. Denbora unitate horren arabera baloratu ezin direnean, eguneko lanaldia 7 ordu eta 30 minututakoa dela ulertuko da.

* Ez dira baloratuko laneko orduak ez direnak eta boluntario gisa lan egindakoak.

Ez da kontuan hartuko epe kanpo aurkeztutako dokumentazioa.

Berdinketarik gertatuz gero, proba praktikokoan puntu gehien lortu dituen izangaiaren alde joko da.

8.- Organo eskuduna.

Epaimahaiak proposatuko dio Olaztiko alkate-lehendakariari puntuaziorik altuena lortu duten bi izangaiak izendatzea, alkatea baita horretarako eskumena duen organoa.

9.- Errekurtsoak

Deialdi honen, oinarrien eta aplikatzeko egintzen aurka ondoko errekurtsoetako bat aurkez daiteke, hautara:

- a. Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- b. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurtsoaren xedeko egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- c. Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.

Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

10. Behin-behineko datu pertsonalak babesteari buruzko politika

Izangaien datu pertsonalak Olaztiko Udalaren ardurakoa den fitxategi batean sartuko dira, eta hautaketa-prozesu hori kudeatzeko erabiliko dira, betiere deialdiaren oinarrien arabera. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako. Nolanahi ere, izangaien zerrendak Udalaren web-orrian eta iragarki-taulan argitaratuko dira. Datuen tratamenduak beharrezkoak dira interes publikoaren aldeko deialdia gauzatzeko (2016/679 Erregelamenduaren 6.1.e artikulua, ekainaren 5eko 113/85 Foru Dekretuan oinarri duena. Dekretuaren bidez onetsi zen Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua).

Hautaketa-prozesua gauzatu bitartean eta alderdiek espedientearen inguruan aurkeztu ditzaketen jardueren preskripzio-epeetan gordeko dira datu pertsonalak. Prozesu guztia amaitzean behar ez diren datuak ezabatuko dira, betiere aplikatu beharreko artxibo eta dokumentuei buruzko foru araudian ezarritakoarekin bat.

Datuen titularrek eskubidea izango dute euren datu pertsonalak eskuratu, zuzendu (okerrak direla uste badute) edota kentzeko (beharrezkoak ez direnean). Legez aurreikusitako kasuetan ere erabili ahal izango dute tratamendua mugatzeko eskubidea, bai eta aurka egitekoa ere, egoera jakin batzuetan eta beren egoera partikularrekin lotutako arrazoiengatik. Horretarako, Udalera jo beharko dute, eta han emanen zaizkie ereduak eskubide horiek gauzatzeko Era berean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute Datuak babesteko Espainiako Agentzian (agpd.es), betiere tratamenduak indarreko araudia betetzen ez duela uste badute.

I. Eranskina

Izen-abizenak / Nombre y apellidos:	
Helbidea / Domicilio:	
Herria / Localidad:	Probintzia / Provincia:
Telefonoa / Teléfono:	
Nortasun Agiria / Documento de identidad:	
Posta Elektronikoa/Correo electrónico:	
En representación de:	(r)en izenean
Erantzuna jasotzeko hizkuntza / Idioma para recepción de respuesta:	

DECLARA QUE: / ZIN EGITEN DU:

- Ez du dagozkion eginkizunak betetzea galarazten dion eritasun edo akats fisiko edo psikikorik
 No padece enfermedad ni defecto físico o psíquico que le incapacite para el ejercicio de las correspondientes funciones.
- Ez dago sarturik Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean. Udalari baimena ematen dio egiaztatzeko
 No está inscrito en el Registro Central de delincuentes sexuales. Autoriza al Ayuntamiento su comprobación
- Merezimenduak baloratzeko dokumentuen zerreda erantsi du
 Adjunta relación/listado de documentos para la valoración de méritos.

- Desea realizar la prueba de Euskera / Euskara proba egin nahi duela BAI / EZ

La persona abajo firmante solicita ser admitida a las pruebas selectivas a que se refiere la presente instancia y declara bajo su responsabilidad que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones exigidas en base 2.1 de la convocatoria a la fecha de expiración de presentación de instancias, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que se recogen en las bases 2.1 y 5.2

Behean izenpetzen duenak eskakizun honetan aipaturiko aukera saioetan eskuhartzea eskatzen du eta aitortzen benetakoak direla berton jarritako datuak eta eskaerak aurkezteko epea bukatu baino arinago, baldintzetako 2.1 puntuan agintzen dena betetzen duela, eta konpromisoa hartzen du 2.1 eta 5.2 oinarrietan jasotzen diren datu guztiak agiri bidez frogatzeko.

Data / Fecha:
 Sinadura/ Firma:

PROTECCIÓN DE DATOS: En virtud de la normativa de Protección de Datos de Carácter Personal, por la presente autoriza a que los datos personales facilitados sean incorporados en un fichero denominado contactos responsabilidad de AYUNTAMIENTO DE OLAZTI/OLAZAGUTIA y domicilio a Plaza GARCIA XIMENEZ 1, 31809 OLAZTI/OLAZAGUTIA (NAVARRA) La finalidad de este tratamiento es la de gestionar su petición y los servicios ofrecidos. Estos datos no serán transmitidos a terceras personas y serán conservados siempre que sea imprescindible o legítimo para la finalidad que se captaron. En cualquier caso podrá indicar la revocación del consentimiento dado, así como ejercitar los derechos de acceso, rectificación o supresión, la limitación del tratamiento o oponer-se, así como el derecho a la portabilidad de los datos. Estas peticiones deberán realizarse en Plaza GARCIA XIMENEZ 1, 31809 OLAZTI/OLAZAGUTIA (NAVARRA). Se informa que también puede presentar una reclamación, si así lo considera, ante la Agencia Española de Protección de Datos o ponerse en contacto con el Delegado de Protección de Datos en idazkaria@olazti.com	DATUEN BABESA: Datu Pertsonalen Babeserako araudiaren arabera, idatzi honen bidez emandako datu pertsonalak contactos izeneko fitxategian jasotzeko adostasuna ematen da, zeinaren arduraduna OLAZTI/OLAZAGUTIAKO UDALA den, Garzia Ximenez Plaza, 1-31809—OLAZTI/OLAZAGUTIA, helbideaz. Tratamendu honen helburua eskaera honen eta eskeinitako zerbitzuen kudeaketa da. Datu hauek ez dira hirugarren pertsonen helaraziko eta jasoak izan diren helburuarentzat soilik beharrezko edota legezko diren bitartean gordeko dira. Nolanahi ere, emandako baimena bertan behera utzi ahal izango duzu. Era berean, datuetan sartu, zuzendu edo kentzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzu, baita tratamendua mugatu eta transferitzeko eskubidearen aurka egiteko eskubidea ere. Eskaerak helbide honetan egin beharko dira: GARTZIA XIMENEZ PLAZA, 1, 31809 OLAZTI (NAVARROA). Halaber, erreklamazioa aurkeztu dezakezu Datuak Babesteko Espainiako Agentzian edota harremanetan jarri Datuak Babesteko ordezkariarekin: idazkaria@olazti .com
---	--

II. ERANSKINA LAN-POLTSARAKO ARAUAK: DEITZEKO IRIZPIDEAK

1.- Deialdi honen xedea da begiraleen lan-poltsa bat sortzea, Olaztiko Udalak Gaztetxoko zerbitzuaren erabiltzaileen beharrei erantzuteko. Zerbitzua aisia eta denbora libreko eskaintza da. Udalak antolatzen du Akelarre udal ludotekaren bidez, eta 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago. Kanpaina euskaraz da.

2.- Izangaia deitzeko prozedura hau erabiliko da:

- Puntuazio ordenaren arabera egingo dira beti ere deiak, ondoko paragrafoetan ezarritakoari kalterik egin gabe eta betiere kontratu behar diren monitoreen kopurua bete arte.

- Ahal den azkarren aurkitzea errazteko, izangaiek harremanetarako telefono zenbaki bat baino gehiago eman ahalko dute edo posta elektronikoa.

- Oro har, izangai bakoitzari kontratu bat eskainiko zaio telefonoz (horrek ez du kentzen posta elektronikoz ere bidali ahal izango zaiola). Izangai bakoitzari gutxienez hiru dei, behintzat, egingo zaizkio emandako zenbakietan eta helbideetan, eta bi egunez.

Dei bakoitzaren idatzizko oharra egingen da, gorabeherak, eguna eta ordua aipaturik.

- Izangai batekin harremanetan jartzerik ez bada, zerrendan hurrengoa denari deituko zaio, harik eta eskaintzen diren lanpostu guztiak bete arte.

- Harremanetan jartzerik izan ez duten izangaiek zerrendan zuten postuari eutsiko diote.

- Izangai batekin harremanetan jarri eta kontratazio-eskaintza bat egiten bazaio eta ez badio erantzuten, ezetsitzat joko da.

- Zerrendatik baztertuko dira ondoko egoera hauetako batean dauden izangaiaik:
 - Probaldia gainditzen ez badute.
 - Eskainitako lanpostuari arrazoirik gabe uko egiten badiote.
 - Izenpetutako kontratuari uko egiten badiote, arrazoitutako kasuetan izan ezik.
 - Lanpostua uzten badute.